



I PLAN  
ESTRATÉGICO  
DE CONVIVENCIA  
DE NAVARRA

---

NAFARROAKO  
BIZIKIDETZAREN  
I. PLAN  
ESTRATEGIKOA

**NAFARROAKO BIZIKIDETZAREN I. PLAN ESTRATEGIKOA**  
**ABIAN JARTZEKO**  
**OINARRIEN DOKUMENTUA**

**José María González Odériz**

Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zerbitzuko zuzendaria

Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia  
Herritarrekiko Harremanetarako Departamentua

## **Aurkibidea**

Zergatik Bizikidetzarako Plan Estrategiko bat Nafarroan? .....	3
Zer esan nahi du Nafarroako Bizikidetzara Plana plan estrategikoa izateak? .....	6
Helburu Estrategiko Orokor baten definizioa .....	7
Nafarroako Bizikidetzarako Plan Estrategikoaren egitura .....	8
Plana ezartzeko prozesua .....	9

## **Zergatik Bizikidetzarako Plan Estrategiko bat Nafarroan?**

Edozein komunitatetan, bizikidetzaren kalitatea funtsezko elementua da giza garapenerako eta komunitate hori osatzen duten pertsona guztien ongizaterako.

Bizikidetzaren alde lan egiteak esan nahi du, batetik, pausoka eta erabakimenez hurbiltzea askatasunean, justizian eta giza eskubide guztien errespetuan oinarritutako balio eta kode etikoen sistema batera, eta, aldi berean, gizartea eta erakundeak indartzea demokrazia, berdintasun eta elkartasuneko jardunean, desberdinen arteko errespetuan eta gatazkak modu baketsuan eta elkarrizketaren bidez konpontzeko borondatean. Bizikidetzaren maila egokiak bilatzea ez da inola ere utopia bat; aitzitik, ezinbestekoa da komunitatearen garapenerako. Hain zuzen ere, bizikidetzarako baldintzak bete gabe komunitatean erabat garatzeko ideia da gizatasunaren aldetik bideraezina dena.

Foru Komunitateak gaur egun bizi duen une politiko eta sozialean, Nafarroako Gobernuak bere gain hartu nahi du bizikidetzari buruzko erantzukizuna, lehentasunezko zatitza baitauka helburu hori. Beraz, guztiz koherentea da bizikidetzaren hobetzeko ekimen eta ekintzen planifikazio bat sustatzea, eta, gainera, ahalegin politiko egin behar da haien guztien lidergoia eramateko.

Nafarroako Gobernuaren xede irmoa da gure komunitateko bizikidetzaren hobetzea, eta hala erakusten du Agenda 2030en Garapen Jasangarriko Helburuak (ODS) bere egiteak, hau baita 16. helburua, "Bakea, justizia eta erakunde sendoa" izenburukoa: bakearen kulturaren murgildutako erkidegoak eratzea, indarkeria baztertuta gatazkak ebazteko tresna gisa, norbanakoen eta taldeen giza eskubideetan oinarritutako justizia bat garatuz eta herritarrentzat egonkorrak eta fidagarriak izango diren erakundeak indartuz.

Alde horretatik, 2019. urtean hasitako legegintza aukera eman du gobernu berri bat eratzeko, bere ildo politiko nagusiak planteatzen dituen "Bizikidetzaren, berdintasunaren, berrikuntza eta aurrerapena ardatz izango dituen legegintzaldi baterako programakordio" batean. Akordio horrek, Memoria, Bakea, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideak izeneko 3.11 kapituluko lehen puntuan, honako jardueraren proposamen hau jasotzen du: "Bizikidetzaren, Memoriaren eta Giza Eskubideen Plan Estrategiko bat garatzea, ahalik eta adostasun handiena bilduko duena eta gai horietan jarraitu beharreko ildo estrategikoak erakutsiko dituen".

Hiru dimentsioak –bizikidetza, memoria eta giza eskubideak– planaren funtsezko esparrutzat hartzen dira, eta engranaje bakar eta zehatz gisa funtzionatzen dute. Bide ematen digute Nafarroan bizikidetzari eragin dioten gertaeren arrazoietan eta esanahian sakontzeko, eta, halaber, gertaera horiek gure komunitatearen kontzientzian eta praxi kolektiboan eragin dituzten aldaketetan sakontzeko. Horretarako, erronka sozial eta politiko ugari eta konplexuak dakarzkigute, eta gure etorkizuna markatuko duten konpromiso eta akordio komunitarioak hartu beharra.

Hala, Planak kontuan hartu beharko du gure komunitatean izan dugun iragan traumatikoarekin kritikoa izango den memoria bat garatzea, indarkeriaren biktima izandako guztiak barne hartuta; pertsonen eta erakundeen arteko konfiantza berreskuratu beharko du; giza eskubideekiko konpromisoak finkatu; eta gorrotoa, intolerantzia, abusuak eta indarkeria desaktibatze, deslegitimatzeko eta desagerrarazteko ekintzak proiektatu.

Planak, halaber, estrategiak zehaztu beharko ditu Nafarroako Foru Komunitatean dauden unibertso eta identitate soziopolitiko eta linguistikoaren arteko errespetuzko bizikidetza bideragarri egiteko. Erronka eta aukera horrek gonbita egiten du barnago sartzeko kultura-aniztasunean, elkarriketa demokratikoan eta gure erakunde politikoek eta kolektiboek lor ditzaketen konpromisoetan.

Bizikidetza Planaren definizioan gai garrantzitsua da, orobat, pertsona guztiek eskubide- eta askatasun berdinak izatea haien generoa gorabehera. Horregatik, gai hauei heldu beharko zaie, besteak beste: emakumeek pairatzen dituzten diskriminazio larriak, sexu- eta genero-aniztasunarekiko aurreiritziak eta indarkeria matxista.

Planak arreta jarri behar du eskubide sozialen eremuan berme seguruak izan daitezen komunitateko pertsona guztiak erabat eta bereizkeriarik gabe gizarteratzeko. Eskubide sozialik gabe, ez dago berdintasunezko bizikidetzarik.

Bestalde, ezin da ahaztu gaur egun munduko hainbat tokitako komunitateak etengabeko aldaketa demografikoak jasaten ari direla, gerrek, hondamendi naturalek, goseteek eta abarrek eragindako migrazio-mugimenduen ondorioz. Hori da Nafarroaren kasua ere, etnia eta kultura askotako taldeak hartzen dituen komunitate bihurtu baita. Beraz, Nafarroako Bizikidetza Planak errealitate berri horiek jaso beharko ditu, zeinek ikuspegi integral bat eskatzen baitute kulturen arteko eta erlijioen arteko bizikidetzari eta pertsona migratzaileek aitorturik behar dituzten eskubide sozial kolektiboak buruz.

Planak, gainera, bermeak bultzatu beharko lituzke herritarren oinarrizko arauak errespetatzen dituen gizalegezko bizikidetza baterako, aurre hartuz ondasun publiko eta pribatuen eta pertsonen aurkako kalteei, Nafarroako herriak herri adeitsuagoak eta seguruagoak izan daitezen.

Beharrezkoa izango da, halaber, lan kritikoa egitea erakundeek bizikidetzan laguntzeko modua indartzeko, benetako erreferentzia izan daitezen balio demokratikoen, desberdinen arteko elkarriketaren eta erantzunkidetasunaren defentsan.

Eta, azkenik, Nafarroako Bizikidetzaren Planaren helburu bakar bat ere ez da posible izango ez bada apustu irmo bat egiten erakundeek sendo bultzatutako hezkuntza-programa berritzaileak sortzearen alde, zeinek memoria kritikoaren, bizikidetzaren eta giza eskubideekiko konpromisoaren balioa transmitituko baitiete belaunaldi gazteenei.

Gogoeta hauen guztien bidez, lehen formulazio bat egin dezakegu zehazteko **zer eremu posibletan** izan dezakeen eragina Nafarroako Bizikidetzaren Planak. Hauek dira:

1. Memoria eta biktimak.
2. Giza eskubideen errespetua.
3. Kulturen eta erlijioen aniztasuna.
4. Lurralde bereko identitate soziopolitikoaren aniztasuna.
5. Pertsona eta ondasunen aurkako gorrotoa, intolerantzia eta indarkeria deslegitimatzea eta desagerraraztea.
6. Gizalegea eta herritarren bizikidetzarako arauak errespetatzea.
7. Eskubide eta askatasun berdinak izatea pertsona guztientzat, edozein dela ere haien generoa.
8. Giza eta gizarte-balioetan hezteko eta sentsibilizatzea, eta bizikidetzarako gaitzea.
9. Eskubide sozialak, eta gizarteratze erabateko eta bereizkeriarik gabeko bat lortzeko bermeak.
10. Erakundeak, bizikidetzarako balio demokratikoen erreferentzia.

## Zer esan nahi du Nafarroako Bizikidetza Plana plan estrategikoa izateak?

Esan nahi du Gobernuaren jarduerak ez direla oinarrituko epe laburreko ekintzetan, departamentuek bakarrik garatu eta kudeatuko dituzten ekintzetan.

Bizikidetza Planari izaera estrategikoa emateak honako hau dakar:

- Berehalakotasuna baztertu eta epe ertaineko plangintza bat egitea, emaitzak eta eraginak epe luzera ekarriko dituena.
- Maila instituzional, sozial eta politikoan gehiengozko akordioa eta adostasunak bilatzea beti.
- Parte hartzeko prozesu bizi eta luze bat egituratzea. Plan estrategikoak Komunitatearen proiektu bihurtu behar du, ez bakarrik Gobernuarena.
- Lurraldetasuna eta zeharkakotasuna oinarri hartuta lan egitea.
- Iraupena ematea denboran garatzeko, legegintzaldi batetik harago.

Gainera, plan estrategikoak ahalbidetu behar du:

- Abiapuntuko egoera ulertzea: gai kritikoak, beharrak, erronkak, arazoak, lehentasunak, aukerak...
- Helburu orokor bat eta epe ertaineko helburu batzuk zehaztea.
- Abiapuntuko egoeratik helburu orokorrera iristeko gaitasun handiena duten ardatzak, jarduera-ildoak eta proiektuak proposatzea eta definitzea.
- Ahalegin kolektiboen kontzentrazioa eta sinergia.
- Indarren osagarritasuna eta eraginkortasuna hobetzea.
- Egoerak ebaluatzea eta erabaki informatuagoak eta azkarragoak hartzea.
- Inplikazioa eta erantzunkidetasuna sustatzea.
- Etorkizuneko egoerak eraikitzen hastea.

## **Helburu Estrategiko Orokor baten definizioa**

Nafarroako Bizikidetza Plan Estrategikoaren helburu orokorrak enuntziatu sintetiko batean formulatzeko modukoa izan behar du, erraz barneratzekoa, eta bizikidetzarako oinarri eta euskarri nahi diren zutabe nagusiak bilduko dituena. Foru Komunitateko gehiengo sozial eta politikoaren arteko adostasuna ere sustatu behar du.

Beraz, formulazio bat proposatzen da, bost zutabe jasotzen dituena, modu batean edo bestean lehen aipatutako 10 eremuak hartzen dituztenak eta, aldi berean, aurre egin beharreko bizikidetza-erronkak iradokitzen dituztenak. Hauek dira zutabeak: berdintasuna, askatasuna, demokrazia, pluraltasuna eta dibertsitatea. Hala, hau izango litzateke helburuaren definizioa:

**“Berdintasunean eta askatasunean bizitzea Nafarroa demokratiko, plural eta askotariko batean”**

Hasiera batean, helburu orokorra epe luzerako helburua da. Ikuspegi bat hautatzea eskatzen du, helmuga bat, hartara nabarmen hurbilduz joateko Planak irauten duen bitartean. Logikoa da Planaren hurrengo edizioetan lehen formulazioaren ordezkariak aktualitate handiagoko beste bat jartzea, baina horrek ez duen esan nahiko lehenengo planaren helburu orokorra guztiz bete denik.

Nafarroako I. Bizikidetza Plan Estrategikoak 2020-2024 bitarteko indarraldia izango du.

## Nafarroako Bizikidetzaren Plan Estrategikoaren Egitura

Nafarroako I. Bizikidetzaren Plan Estrategikoa prestatu eta garatzeak aukera nabarmena ematen du, epe ertainean, Nafarroako bizikidetzari buruzko azterketa-, analisi- eta eztabaida-guneak irekitzeko, eta horrek berehalako ondorio hauek izango ditu:

- Diagnostiko zehatzago eta sakonago bat lortzea Nafarroako bizikidetzaren egoeraz.
- Nafarroan bizikidetzaren kalitatea hobetzeko ekintzen proposamen planifikatu bat prestatzea.
- Parte hartzeko, kudeatzeko eta etengabe ebaluatzeko sistema bat sutatzea, eragile sozial, instituzional eta politiko guztiak inplikatuta Planaren helburu orokorraren inguruan.

Hori dela eta, Bizikidetzarako Plan Estrategikoaren Egiturak garrantzi handia eman behar dio diagnostikoaren eta plangintzaren definizio zehatzari, baina garrantzi handia izan behar du, era berean, plan horren kudeaketa estrategikoaren planteamenduak. Horrek bermatuko du plana tresna bizia izatea, eta ez asmo onen deklarazio hutsa.

Horretarako, mekanismo arinak jarri behar dira martxan plana gauzatzeko eta haren segimendua egiteko. Beraz, ondo zehaztu behar da zein diren, ikuspegi estrategiko batetik, jardungo duten pertsona, entitate eta erakundeak, plana definitzen eta garatzen lan egingo baitute haien departamentu teknikoek, erakunde politikoek, entitate eta elkarteek eta herritarrek. Halaber, zehaztu behar da nolakoak izango diren eragileen arteko harremanak eta lankidetzak, nola proposatuko den lanean neurriak sartzeko, nola hartuko diren erabakiak, eta zer egitura berri eratu eta martxan jarri behar diren *ad hoc* parte hartzeko eta segimendua egiteko.



## Plana ezartzeko prozesua

Hona hemen plana ezartzeko funtsezko mugarri batzuk:

- Prestakuntza-prozesua abiaraztea, foru-agindu baten bidez. (2019ko abendua)
- Atariko fasea eta Gobernu Irekiko Ataria abian jartzea. (2020ko urtarrila)
- Plana prestatzeko fasea: Parte hartzeko eta kudeatzeko egiturak eratzea. (2020ko apirila)
- Atariko fasean jasotako ekarpenen emaitza aurkeztea. Diagnostikoa egiteko fasea abiaraztea. Parte hartzeko foroen 1. edizioa. (2020ko maiatza)
- Planaren proposamenak egiteko fasea abiaraztea. Parte hartzeko foroen 2. edizioa. (2020ko iraila)
- Diagnostikoa eta plangintza aurkeztu eta argitaratzea. Zirriborroa. (2021eko urtarrila)
- Jendaurreko erakustaldia eta Planaren aurkako alegazioak aurkeztea. (2021eko otsaila)
- Plana onestea. (2021eko martxoa)
- Plana gauzatzeko fasea abiaraztea. (2021eko apirila)
- Tarteko ebaluazioa. (2022ko iraila)
- Azken ebaluazioa. (2024ko ekaina)
- II. Bizikidetza Plan Estrategikoa abiaraztea. (2025eko urtarrila)